

## Ekitaldi ikusgarria Andatza plazan

Tirri-Tarra taldea Alboka abesbatzarekin batera *Argi Beltz* ikuskizuna eskaini zuen larunbatean

Larunbat arratsalde partean bat baino gehiago harrituta geratuko zen musika eta soina nondik zetorren ez zekielako. Tirri-Tarra taldea zen azken ikuskizuna prestatzen eta entsaiatzen iluntzean lasarteoriarrei eskaintzeko.

Beraiekin batera aritu ziren herriko Alboka abesbatza eta Sotto Voce orkestra. Laurogei lagunetik gora bildu ziren taula gainean Jose Ignacio Rios-en aginduetara *Argi Beltz* ikuskizuna eskaintzeko. Tirri-Tarraren esanetan "Sergio Zurutuza kompositorearen musika eta letrak ditu ikuskizunak: entzun eta sumatzen den ikuskizunak. Oso estilo ezberdinak biltzen ditu emanldiak, sinfonismo klasikotik rock estilora, heavy eta folk kutsuekin".

Udaleko Gazteria eta Festetako sailak antolatutako ekitaldia gaueko hamaiketan

hasi zen, eta jende ugari bildu zen Andatza plazan bi ordu eta erdi iraun zuen ekitaldia ikustera eta entzuterara. Ekitaldia ikustera joan ez zirenak ere entzungo zuten musika seguruenik, izan ere herriko leku ezberdinetara iristen zen soina. Ez da harritzekoa, mota honetako ikuskizunetan potentzia handiko soinu ekipoak erabiltzen baitira.

Larunbatean Alboka abesbatzarekin eta Sotto Voce orkestrarekin batera honako egitaraua eskaini zuten: *Intro Max Allá, La 9 D..., Perdido, hasta Siempre, Fobia ¿Realidad o Ficción?, Intro Nahia, Nahia eta Sin Palabras*.

Tirri-Tarra taldea fanfarre izatetik orkestra izatera pasa zela dira bederatzi urte. Orain, ezken lan honekin estatu mailako gira egiten ari dira, udarako badituzte 10 ekitaldi inguru hitzartuak. •



Emanaldia zoragarritzat jo zuten Argi Beltz ikuskizuna entzuterara eta ikustera joandakoek.



Ostadar Kirol Fundazioak XXV. urteurrena ospatuko du larunbatean /2

### GIZARTEA ■ 6

Xirimirik eta Semblante Andaluzek ekitaldi ugari antolatu dituzte asteburuan



Iban Mayoze, Euskal Bizikletako tarteko helmugetako saria irabazi du /5

# ANAIAK

JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 · Tel.: 943 362386  
LASARTE-ORIA



## ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi kalea 3 · Lasarte-Oria · Tel.: 943 361278

# Ostadar K.F.k 25.urteurrena ospatuko du larunbatean, Michelinen

TXINTXARRI

**Ostadar Kirol Fundazioak ekainaren 21ean, larunbatean, 25 urte elkarrekin lelopean festa antolatu du hogeita bosgarren urteurrena ospatzeko. Larunbat goizean Michelingo instalazioetan bolo eta toka tirada, tenisa, Mosso Kopako finala, futbol 7ko partidak eta futbol jokoak eta ondoren, bazkari herrikoia prestatu dute.**

Ostadar Kirol Fundazioak 1983. urtean jaio zen, beraz 25 urte bete ditu aurtengo denboraldian. Urte guzti hauetan, herrian kirola sustatzeko lanean aritu da eta ari da oraindik. Hori ospatzeko jaialdi bat antolatu dute Ostadarreko kirol atal desberdinetako ordezkariak.

Ekainaren 21ean, larunbatean, goizeko 10:00etan hasiko da kirol jaia: bolo eta tokako tiradak helduentzat eta haurrentzat antolatu dute. Beraz, parte hartu nahi duten herritarrek larunbatean bertan, bolatokian eman beharko dute izena. Tenisekoek urte amaierako festa egingo dute teniseko kantzian, 10:00etatik aurrera: izerdi pixka bat bota ondoren, sari banaketa izango dute eskolako tenislariek. Aldi berean, futbol zelaian Ostadarreko taldeen arteko partidak eta jokoak egingo

dituzte.

Mosso Kopako finala 12:00etan bertan jokatu dute. Atsedendian sorpresatxo bat prestatu dutela kontatu digute.

Herri honetan ohikoa den bezala, bazkari herrikoia batekin amaituko dute festa. Bazkaria Michelingo frontoian izango da eguerdiko 14:00etan eta 400 pertsonentzako prestatuko dute. Lasarteoriatar guztiei irekita dago. Beraz, joateko asmoa dutenek, ekainaren 18a baino lehen, Ostadarreko egoitzan, Geltoki 25. zenbakian, erosi beharko dituzte txartelak.

## Zilarrezko ezteiak

1983. urtean, kirolaren bitartez herriko auzo ezberdinetako bizilagunak elkar ezagutzeko xedearrekin jaio zen areto-futboleko txapelketa eta horrela, jaio zen Ostadar Kirol Elkarteak. Ostadar jaiotzen lagundu zutenek ez zuten imajinatuko eman zuten lehen urrats harenik elkarrekin 25 urteko ibilbidea egingo zuenik. "Gauza asko gertatu dira eta momentu latzak eta politak bizi izan ditugu", dio Ostadarreko kide batek, "bitan elkarteko atek isteko zorian izan gara, baina indarberriturik atera gara aurrera. Azken finean, atzera begira eta lanean jarraitzeak merezi duela



Ostadar Kirol Fundazioko kideek 2005. urtean denboraldi bukaerako bazkaria Garagardo Azokan ospatu zuten

konturatzen zara".

## Kirol atal berriak

Elkartea urtetik urtera haunditzen joan da: 8 futbol talde federatu (175 jokalar), tenis eskolan 35 tenislar, bolotako taldea, Lasarte-Oria Bai kros herrikoia, pala txapelketa eta areto-futbola. Aurten bi atal berri dituzte: atletismo herrikoiko taldea (80 lagun inguru) eta futbol

eskola (50 hurrekin). "Herritar eta bazkide askoren lana, esfortzua eta konfiantza dago kirol egitasmo honen atzean. Eta honi esker bete ditu Ostadarrek hogeita bost urte".

## Egoitza aldaketa

Urte hauetan elkartek egoitza ezberdinak izan ditu: elkarteko lehen bilerak Ilargi Tabernan eginen ziren; gero

ikastola zaharreko lehen solairuan; hortik Txepetx-Kabi taberna parera; azken urteotan, Geltoki 2 zenbakian eta egun, Geltoki 25. zenbakian. Beraz, "aurrerantzean, Iparragirre zapata denda izandakoan aurkituko gaituzue, atek irekita".

Ostadarreko ordezkariak herritar guztiei luzatzen die gonbitea, larunbateko bazkarian parte hartu dezaten. •

## Udal kiroldegia udako kirol jarduerak antolatu ditu

Udal Kiroldegia udako kirol eskaintzaren berri eman nahi du. Jarduera hauek ekainaren 26an hasiko diren arren, bertan parte hartzeko interesa duten pertsonak, Udal Kiroldegiko bulegoetan eman behar dute izena eta dagozkieen matrikula orria bete behar dute.

Kirol eskeintzak haur, gazte eta helduentzat dago zuzenduta. Ekainaren 26an, goizez, udal igerilekuan, 5 eta 12 urte arteko umeentzat uretako festa antolatu dute. **Aerobika, Pilates** eta **Indor Txirrindularitza** egiteko aukera izango duzue 12 urtetik gorakoek: hilaletako irupena izango dute hiru jarduerak eta asteen bitan egin-

go dute. Goizeko eta arratsaldeko taldeak antolatuko dituzte.

Zazpi urtetik gora dituztenentzako **Gimnasia Erritmikoa** antolatu dute: hilaletako iraupena izango du, baina goizez soilik egin ahal izango da.

Tonifikazioa, berriz, hilaletako iraupena izango du, asteen bi arratsaldetan egin ahal izango da eta 12 urte gorakoentzat zuzenduta dago.

2004. urtean edo lehenago jaiotako umeentzat eta helduentzat igeriketa ikastaroa antolatu dute: 20 jardunaldietako ikastaroa izango da eta taldeak goiz eta arratsaldez arituko dira. •



# Asanblada jendetsua izan zen ostiralean Gazte Bilgunean

■ Proiektuan parte hartzeko animuak sumatu ziren lokal berriaren aurkezpenean

TXINTXARRI

Ostiralean, ekainaren 13an, gazte asanblada egin zuten gazte lokalean. Gazte bilgunea sortzeko asmoarekin ireki dute lokala, euskaraz funtzionatzeko gazteek kudeatuko duten gune bat izango da eta ostiralean gazteen jarrera, hartu nahi dituzten ardurak eta dituzten ideien berri izateko bildu ziren antolatzaileak eta herriko gazteak. Bilerari hasiera emateko talde iraunkorrek Gazte Bilgunearen aurkezpena egin zuten bertaratu nahi izan zutenek proiektua ezagutu zezaten. Berrogei bat gazte hurbildu ziren Iñigo de Loiola kalean dagoen lokalera proiektu desberdin honen berri izatera.

Jendeari gustatu zitzaion bertan aurkeztu zen proiektua eta ideia batzuk botatzen ausartu ziren batzuk, gehien bat musika, antzerkia, irratia eta zinearen ingurukoak izan ziren baina ohikoak ez diren hitzaldi eta solasaldiak egiteko proposamenak ere entzun ziren, adibidez literatura eta sensualitatea uztartzen duten saioak egitea. Okendo Zine Taldekoak ere parte hartzerantz animatu dira beraien mate-

rial eta ezagutza aprobetxatuz zine forumak antolatzeko horrela zinea gustuko dutenak edo ezagutu nahi dutenak biltzeko.

Herriko gazteak prest daude proiektuan parte hartzeko eta bere burua eskaini dute behar diren lan ezberdinak egiteko, hala nola, lokalaren atontzean parte hartzeko edo eta dirua biltzeko ekintzak antolatzeko.

Horrelako proiektu batek zailtasunak baditu bai teknikoak eta baita ekonomikoak ere beraz aurrera ateratzeko jendearen laguntza beharrezkoa da.

Asanblada bukatutakoan patata tortilla jaten geratu ziren eta ideia berriak botatzen jarraitu zuten, janari artean imajinazioa martxan jarri zen.

Momentuz, taldeak osatzeke daude horregatik datorren ostiralean 18:00etan berriro bilduko dira ideiak botatzen jarraitzeko eta ideia horiei forma ematen hasteko. Nahi duena gerturatu daiteke gus-tuko duen proiektuan lagun artean parte hartzerantz eta jardueraren bat aurrera atera nahi badu eta ez badaki non bertan dauka aukera polita. •



Aurkezpena bukatutakoan, bildutakoek mokadu bat jenez jarraitu zuten proiektuari buruz hizketan.

## Squasheko finala jokatu zen larunbatean

Larunbatean Squasheko azken partidak jokatu ziren kiroldegian. Arratsaldeko 16:00etan hasita kontsolazio tandako partiduekin hasi ziren. Lanzeta eta Amiano aritu ziren lehenengo horretan eta Xabier Amiano egin zen garaipenarekin 3 eta 1eko emaitza lortu zuenean. Hirugarren eta laugarren postuetatik Alberto Udabe eta Aitor Artola lehiatu ziren. Ondo moldatu zen Aitor eta 3 eta 2ko emaitzarekin hirugarren postua eskuratu zuen.

Finala Arregik eta Carreterok jokatu zuten arratsaldeko 17:00ak aldera. 3 eta 0eko emaitzarekin irabazi zuen Arregik aurtengo Squash txapelketa. Lehenengo partidua oso berdinduta joan zen hasieratik, baina azkenean Arregi atera zen garaile 15 eta



14ko emaitzarekin. Bigarrena azkarragoa izan zen eta berriro Arregi irabazle Carreteroren 4 tantoen ondoan. Azken partiduan berriz ere Arregi irabazle eta torneoko lehen postua eskuratu zuen.

Bukatutakoan Karlos Altunak, Iñaki Mujicak eta Fernando Eskoriazak egin zuten sari banaketa, larunbatean jokatuako partiduetan aritu ziren guztiak eraman zuten saria etxera. •



## Ruben Salvador zoragarri Jalgin

Kontzertu ederra eskaini zuten ostiral gauen Ruben Salvadorek eta bere lagunek. Hasiera batean laukotea iragarri bage-nuen ere, gero, boskoteaz gozatzeko aukera izan genuen. Ikusleei iristea kosta bazi-

ztaien ere, izan ere ekitaldi ugari zeuden egun berean eta kontzertua pixka bat atzeratu behar izan zuten, bertaratu-takoek merezitako txalo zapar-radak eskaini zizkieten musikariei. •



# Euskarari indarra emateko plana onartu da

■ Udal batzak 2008-2012 plangintza onartu zuen maiatzaren 30ean burutu zen plenoan

Helena FERRERAS

Euskara Biziberritzeko Plana hizkuntza suspertzeko asmoarekin onartu da, bost urtera begira egin den plana da, 2008-2012 epealdirako. Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukera emateko asmoarekin eta eskubide hori bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak bultzatzeko gauzatu da. Euskararen presentzia oraindik hainbat esparrutan oso ahula da, gehien aurreratu den eremuetan egoera ez da gaztelaniaren parekoa beraz, planean azaltzen den moduan egunerokotasuna irabazita ez dagoenean arriskutsua izan daiteke lehenago garbirik ez finkatzea eta esparru guztietara hedatu nahi izatea. Horregatik maila personalean, sozialean eta ofizialean euskararen berreskurapen osoa lortzeko urratsak areagotzea izan da planaren helburu nagusia.

Hiru helburu estrategikoren inguruan egin da lan plana garatzeko euskararen ondorengotzea, euskara erabiltzea eta euskara elikatzea. Horien barnean esparru desberdinak landu dira helburuak lortu ahal izateko.

## Euskara Ondorengoetaraztea

Alde batetik, familiaren, eskolaren eta helduen eskalduntze eta alfabetatze bidez hizkuntza bera osatzea lortu nahi da, aberastu eta hobetu hain zuzen ere. Belaunaldi batetik bestera etenik gabe igarotzea, euskara belaunaldiz belaunaldi igarotzea lortzeko. Familia, eskola eta eskualtegia dira hiztun berriak sortzeko edo sortutakoak osatzeko hiru esparruak nagusiak.

**Irakaskuntza:** Irakaskuntzan egoera geroz eta hobea da euskararentzat, D ereduaren nagusitasuna ia erabatekoa da, baina horrek ez du beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatzen. Esparru honetan egin beharrekoak nahiko definituta daude baina Bigarren Hezkuntzaren Ondorengoan dago egiteko lanik handiena, Buruntzaldeko DBHOKO programa dago horretarako baina Halduen Heziketa Iraunkorreko ikastetxeak eta Lanbideko Hastapen Tailerrek oraindik egin gabe daukate hizkuntza-plana. Horregatik proposatzen



Euskara aberastu nahian antolatutako azken kanpainetako bat *Apellidua* abizendu izan da.

da agenteekin hizkuntza normalizatzeko planak hitzartzea eta dagoeneko eginda dauden planak laguntzea. Gainera etorkinen inguruko azterketa komenigarria litzateke hauen beharrak eta aukerak aztertze eta horren arabera ere jarduteko.

**Euskalduntze eta alfabetatzea:** ondorengoetaraztea eman dadin herritarrek eskalduntzea beste pauso bat litzateke. Horretarako proposatzen dena euskaltzako zerbitzuak hobetzea eta programa zehatzak antolatzea ikasleak ahalik eta hiztun egokienak izan daitezten da. Gainera etorkinak Euskal Herriko parte badirenez euskal hiztun ere bihurtzeko eta hauen inguruko azterketa

komenigarria litzateke beharrrak eta aukerak lantzeko.

**Familia bidezko jarraipena:** euskara familia bidez transmititzeko ere ekintzak prestatu dira. Ikastetxe gehienetan arlo honen inguruan hausnartu dute eta ados daude planifikatu beharra dagoela horregatik dagoeneko hasiak dira plana gauzaten. Gurasoei zuzendutako programak euskaraz ere eskaintzea da helburu nagusietako bat. Planteatu diren ekintzak gehien bat, gurasoak euskalduntzeko antolatzen diren gauzak diruz laguntzea dira, bestalde euskaldunak diren haur-zaintzaileen zerrenda osatzea ere planteatu da.

## Euskara erabiltzea

Arlo honetan eman nahi den aurrerapauso nagusia ahozko jarduna indartzeko ahaletarako departamentu gehiagotara zabaltzea da eta kanpoko zerbitzuak kontratatzerakoan hizkuntza irizpideak kontuan hartzea.

Administrazioan, teknologia berrietan, enpresa-munduan, aisialdian eta kirolean sustatu nahi da euskararen erabilera. Alde batetik langileen artean sustatu beharko litzateke bai kanpo harremanetan eta baita barne harremanetan, langileen prestakuntza ere sendotu behar da horretarako eta langileen

jarrerak aztertu eta euskararen normalizazioaren aldekoak izan daitezten landu. Bestetik, hizkuntza paisaia ere euskaldundu nahi da bai kalean eta baita administrazioetan ere, udal txetan, osasun-zentroan eta epaitegian esate baterako.

Paperik gabeko informaziorako zerbitzuak euskaraz eskuragarri jartzea aurre ikusten da baita udalaren web orrialdean euskararen inguruko informazioa jasotzea baina hau lortzeko laguntza teknikoak eta diruzkoa beharrezkoa da.

Enpresa-munduan lana egiteko aholkulari bat kontratatu da. Hamar enpresa daude euskara-plana dutenak haietatik bat Lasarte-Oriakoa. Diru-laguntzak egongo dira enpresa txikietan euskararen erabilera handitze-

ko, paisaia linguistikoa euskalduntzeko kanpainak egingo dira establezimenduetan eta nola ez sustapen lanak "LanHitz" edo "Zeu irabazle" programekin.

Udalak aisialdirako dituen zerbitzu eta programak euskaraz eskaini eta baita eskola-orduetatik kanpo antolatzen diren jarduerak ere euskaldundu behar dira euskararen erabilera indarra hartu dezan, adibidez entrenatzaileak prestatzeko ikastaroak antolatu. Aldi berean euskaraz dauden aisiarako lokal eta taldeei laguntza eman behar zaie indarra hartu dezaten.

## Euskara elikatzea

Euskara aberasteko bi ekintza solte gauzatu dira orain arte "apellidua abizendu" eta "idatziak" liburuxkaren banaketa. Bestalde, Euskaltzaindiari laguntza eskatu zaio esparru honetan plan sektorial bat egiteko baina ez da erantzunik jaso. Planteatu dena hizkuntza paisaia txukuntzea izan da eta ahozko produkzio kulturala lantzea. Proposatutako ekintzak batez ere azterketa linguistikoean, eta prestatutako materiala editatzean datza. Liburugintza, publizitatean, kulturgintzan eta hedabideen esparruan egin behar da lana, horrela euskara kaleratu eta aberasteko. •

*Hiru dira helburu nagusiak: belaunaldiz belaunaldi igarotzea, erabilera sustatzea eta aberastea*

*Euskararen presentzia ahula da, gehien aurreratu den eremuetan ere ez da erdaren parekoa*



## ‘Ezer berezirik ez bada gertatzen Espainiako Vueltan parte hartuko dut’

Iban Mayoz Karpin-Galicia taldeko txirrindulariak Euskal Bizikleta proban tarteko helmugetako saria irabazi du. Aurtengo denboraldian bigarren aldia da tarteko helmugetako mailota eskuratzen duela, eta biak etxean. Izan ere, lehena Euskadiko

Itzulian irabazi zuen. Ibanek bost urtetako eskarmentua du profesionaletan: Relax, Euskaltel Euskadi eta aurtun Karpin-Galicia taldearekin ari da. Euskal Bizikleta amaituta, aste honetan Frantziara doa Hegoaldeko Rutan parte hartzeko.

ITZIAR CARRASCO

### Euskal Bizikletan nola ikusi duzu zure burua?

Ondo. Zerbait egiten saiatu naiz eta hiru egunetan hor ibili naiz, ihesaldiak harripatu ditut eta azkeneko egunean, tarteko helmugak irabaztea lortu dut.

### Tarteko helmugetan bigarren mailota aurtun. Espezializatzen ari al zara?

Badirudi baietz. Euskal Bizikletan ez nuen asmorik edo ez nuen pentsatzen hori irabaziko nuenik. Baina, puntuak hartzen joan nintzen eta azkeneko etapan, mailota eskura neukan eta saiatu nintzen.

### Euskadiko itzulian eta Euskal bizikletan oso ondo aritu zara, etxean korritzeak konfidantza gehiago ematen al dizu?

Etxeko lasterketetan gogo gehiagorekin ibiltzen naiz, beste motibazio batekin. Oso desberdina da Murtzian, Portugalen edo hemen korri egitea. Etxean

ondo ibiltzea garrantzitsua da.

### Zure gainean begi gehiago dituzunaren sentsazioa al daukazu?

Ez dakit begi gehiago diren, baina Murtzian edo kanpoko karreretan ez dizute kasu handirik egiten, bertakoa ez zarenez ez zaie inporta ondo ari zaren edo ez. Hemen aldiz, etxe-koak begira daude eta kasu gehiago egiten dizute. Agian, horrek motibatzen nau gehiago.

### Denboraldi polita egiten ari zara. Indar berdinarekin bukatzea espero al duzu?

Bai, otsailean hasiera eman genion denboraldiari eta orain arte maila ona eman dut, denboraldia

indarrekin bukatzea espero dut. Aste honetan, 19tik 22ra Frantziara goaz Hegoaldeko Ruta proban parte hartzera; hilak 29an Espainiako Txapelketan izango gara eta gero aste beteko atsedenaldira izango dut. Esan daiteke San Pedroetarako denboraldiko lehen zatia amaitzen dudala. Eta gero Espainiako Vueltarako begira hasiko naiz prestatzen.

### Kirol zuzendariak konfirmatu al dizu Vueltan izango zarela?

Hasiera batean Vueltara joango den taldean nago, beraz, ezer berezirik ez bada gertatzen bertan izango naiz.

### Zein izango da zure helburua Vueltarako?

Oraindik ez digute ezer esan. Normalean, Ecequiel Mosquera izango da taldeko liderra eta berarentzat lana egitea izango da gure papera. Hala eta guztiz ere, norberak bere aukerak bilatzeko askatasuna izango dugula uste dut.

### Zein da zure rola taldean?

Nahiz eta Mosquera taldeko liderra izan, askatasun handia dugu bakoitzak ahal duena egiteko. Taldeko buru ez den norbait zerbait egitea lortzen badu, gainontzeko guztiok egiten dugu harentzat lana. Niretzako ere beste batzuetan egin ezan dute lana. Txirrindulari guztiok ondo ibiliz gero, aukerak ditugu.

### Sei hilabete igaro dira Karpin-Galicia taldearekin hasi zinela. Zein da zure balorazioa?

Oso ona da. Abenduan txirrindularitzan jarraitzeko esperantza gutxi nuen, Karpin-Galiciak fitxatu ninduen. Kalendarioa, horren ondo ibil-

tza alde dago. Beraz, balorazioa bikaina egin behar dut. Urte oso ona daramat.

### Euskaltel Euskadi, Relax eta Carpin Galicia taldeen artean desberdintasunik ikusten al duzu?

Entrenamenduak eta lana egiteko era nahiko antzekoa dela uste dut. Euskaltel ProTourreko lasterketetan parte hartzen du, agian hori da hiru taldeen arteko alde nabarmena.

### Nola deskribatuko zenuke zure burua, Iban Mayoz, txirrindularia?

Todo terreno bezala. Ondo moldatzen naiz aldapa gora, esprinetan sartu izan naiz... Oraindik ez dut ezer irabazi, baina beno. Uste dut leku guztietan ondo moldatzen naizela.

### Ingurukoek zer esaten dizute?

Urte ona egiten ari naizela, nire burua erakusten ari dudala, saiatzen ari naizela... Dena animoak dira. •

“ Nahiz eta Mosquera taldeko liderra izan, askatasun handia dugu bakoitzak ahal duena egiteko



# Xirimirik urteurrena ospatu du

TXINTXARRI

**Ondo ospatu zuten larunbatean Xirimirik hamazazpigarren urteurrena. Ekintza desberdinak antolatu zituzten egun osoan egiteko eta baita gau partean berandurarte festa egiteko.**

Hamazazpi urte igaro dira Xirimirik elkarteak ateak ireki zituenetik eta beste urte batez, hau ospatzeko egitarau zabala antolatu dute: diaporama, mendi martxa, trikipoteoa, bazkari herrikoa, mus txapelketa eta kontzertuak.

Aurreko ostegunean ekin zioten jaiari diaporama emanaldi batekin, Chile eta Argentinari buruzko diapositibak eskaini zituzten.

Ospakizunarekin larunbatean jarraitu zuten. Goizean, eguna ondo hasteko Buruntzarako mendi martxa egin

zuten. Bueltan trikipoteoa egin zuten Txalagoreren eskutik eta 14:30ak aldera herri bazkaria elkartearen sabela ondo betetzeko. Bazkaldu eta gero mus txapelketa jokatu zuten arratsalde osoan zehar digestioa lasai egiteko. Gau partean 21:00ak aldera berriro bildu ziren elkartearen afaltzeko. Bukatutakoan, 22:30ak aldera, Apurka eta Pettiren musika emanaldiak hasi ziren. Apurka taldeak Balmasedako akustikoa eskaini zuen gitarrara, txalaparta, zeharkako txirula, baxua eta ahotsarekin. Petti Berako bakarlariak ere ikuskizun polita egin zuen, On diska kaleratu berri du eta hori erakutsi zien elkartearen bildu zirenei. Kontzertuak bukatutakoan festarekin jarraitu zuten elkartearen eta giotzeko Naken Selektor-ek Ska-Rocksteady-reggae saioa eskaini zuen. •



Goizean Buruntzara egin zuen irteera eta arratsaldean ekitaldi ugari prestatu zituzten. Argazkian, Apurka taldea.

## Rocioko erromeria dantza eta *manzanilla* artean

TXINTXARRI

**Egun polita izan zen atzo Semblante Andaluz elkarteak antolatutako Rocioko Erromeria izan zela eta. Herriko kaleetan sevillanaz jantzitako jendea ikusi ahal izan genuen. Eguraldiak lagundu zuen eguna atsegina egiten eta gainera festa ospatu zutenek animo handiarekin aritu ziren dantzan.**

Igandean XVI. Rocioko erromeria ospatu zuten Semblante Andaluz Andaluziako elkarteek. Egun osoarako antoaltuak zituzten ekintzetan ibili ziren gaueko 21:00etan festa amaiera egin zuten arte.

Zumarragako "Grupo Boreal", Irungo "C. Embrujado Andaluz", Errenteriatik "C. Andaluz Aljarafe" eta "C. Concha Rociera", Andoaingo "Asociación Triana", Arrasateko "C. Andaluz Al-Andalus", Durangoko "C. Andaluz", "Grupo Amigos del Sur" eta "Grupo Sentimiento" izan ziren gonbidatu moduan Lasarte-Oriara etorritako elkarteak. 10:00etan

ongi etorria egin zieten elkartearen eta 12:00etan Arantzazuko Amaren Parrokira jeitsi ziren Ama Birjinaren bila, ondoren meza rocieroa Semblante Rociero abesbatzaren eskutik. Bukatutakoan, Ama Birjinaren irteera egin zuten Isla plazaruntz. 14:00etan, bazkaldu baino lehen Ama Birjinari omenaldia egin zioten erromeria ospatu zen tokian.

Bazkaldu eta gero Semblante Andaluz eta gonbidatutako elkartearen ekitaldiak hasi ziren, herrikoak Zambra, Duende Flamenco, Semblante Rociero, Amigos del Sur eta Grupo Sentimiento taldeak izan ziren oholza gainera igo zirenak. Bukatutakoan oroigarriak eman zizkieten ekitaldian parte hartutako taldeei. Giro polita sortu zen Isla plazan, adin guztietako jendea gerturatu zen eta dantzara animatu ziren ikusle moduan joandakoak ere.

Ekitaldiak bukatutakoan dantzaldi herrikoa egin zuten eta 21:00ak aldera amaiera eman zioten egunari. •



Talde ugari hartu zuten parte arratsaldeko saioak Isla plazan; oholza gainera eta behean dantzan aritu ziren.

Egunero

**Erakusketa**

JOSE MANUEL MONGE margolariaren ikasleen lanak erakusketa aretoan ikusgai asteleheneretik ostiralera. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00ak arte.

**Erakusketa**

AMARAUN JAIALDIAN, Jalgune Elkarte kideek ateratako argazkiak izango dira ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan



Astearte, 17

**Musika**

UDAL MUSIKA ESKOLAKO kurtso amaierako ikasleen kontzertua. Sarrera doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan



*GR 16ko bertso-afaria*

Ostiralean, hilak 20, GR-16 txapelketako saioa jokatu da Xirimiri elkartearen. Lasarte eta Zarautz neurtsu dira bertan. Sarrerak eskuragarri egongo dira Jalgin. Lasartek jokatuak lau saiokatik hiru irabazi dituela, azken lehengo asteburuan Zarautzen irabazi zutelarik. Bertan, Ane Labaka, Beñat Iguaran eta Amaia Agirre jardun ziren kantari. Ostiraleko bertsolariak zehazteke daude baina ziurtatuta dago afari osteko saio goxoa.

OSTIRALEAN, XIRIMIRIN

Asteazkena, 18

**Hitzaldia**

TRATU TXAKARRAK BIKOTEKIDEEN ERLAZIOETAN landuko dira KIUB-ek antolatutako hitzaldian. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:30ean, GAZTELANIAZ.

Osteguna, 19

**Hitzaldia**

ADISKIDEAK ETA HAIKIN HASERREAK gaiari buruz solasaldia KIUBek antolatuta, 0tik 7 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoentzat. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, GAZTELANIAZ.

**Musika**

UDAL MUSIKA ESKOLAKO kurtso amaierako ikasleen kontzertua. Sarrera doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.



Ostirala, 20

**Musika**

ALBOKA ABESBATZA ETA ALBOKA TXIKI abesbatzen emanaldia. Brigitarren komentuan, 20:30ean.



Igandea, 22

**Dantzaldia**

ERKETZ EUSKAL DANTZARI dantzari taldearen emanaldi berezia. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

Astelehena, 23

**Dantzaldia**

SAN JUAN ZORTZIKOA dantzatu dute Erketz Euskal Dantzari Taldekoek. Udaletxean, 21:00etan.



Liburutegiko ordutegia

Asteleheneretik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irrati programazioa



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.  
Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

**Oharrak**

**Esporting-Konpak tirada igandean**

Buruntz-Azpi elkarteak antolatuta, Esporting-Konpak tirada izango da igandean, hilaren 22an, Ehiza Federazioak Arkalen duen instalazioetan. Goizeko 9etan hasiko da eta hamaiketako ere egongo da. Izen-emateak Buruntz-Azpi elkartearen bertan egin daitezke larunbata bitartean.

**La Esperanza, Bizilagun elkarte oharra**

“La Esperanza” B. E. -ak, Antxisu auzoko sarbide arriskutsuari dagokionez zera adierazi nahi du: Aldundiak Udaletxeari bidalitako proposamenari buruzko informazioa jaso duela Udaletxean, eta horren berri eman ziela Antxisuko bizilagunei, zeinek proposamena aztertu ondoren proposamen berri bat aurkeztea erabaki baitzuten. Proposamen berri hori Antxisu auzokoek “La Esperanza”

B.E-ari pasa diotela eta honek laister aurkeztuko duela Udaletxean.

**Udalekuen zerrendak**

Udalak 2008ko udalekuetarako behin behineko zerrenda onartu du dagoeneko, itxaron zerrendarekin eta onartuak izan ez direnen listarekin batera. Informazioa jendarean egongo da ekainaren 10 eta 25 bitartean, Udaleko iragarki taulan. Epe horren barne, interesa duten guztiek beren alegazioak egin ahal izango dituzte. Alegaziorik aurkezten ez bada, zerrenda behin betiko izatera pasako da. Bestalde, asteazkenean, ekainak 18, gurasoentzako bilera izango da 12.00etan Villa Mirentxun.

**Sorgin dantzaren entseguak hasiko dira**

San Pedro jaietako Sorgin dantzako desfilea prestatzeko asmoz, ekainaren 3an hasita astearte eta ostegunero entse-

guak egingo dira Landaberri BHI ikastolan arratsaldeko 20:00etatik 21:00ak bitartean. Komenigarria da ekitaldian parte hartu nahi duzenok entseguetara joatea. Beraz, aurreko urteetan parte hartu baduzue ere, eta Sorgin dantza ongi dantzatzeko baduzue ere, antolatzaileek entseguetara joatea eskatu nahi dizuete.

**Larrain dantza ikasteko saioak**

Herriko festak aitzaki hartuta, Xiberuko zenbait polka, eta Larrain dantza ikasteko saioak antolatu dira. Edonork hartu dezake parte ekimen honetan. Entsaioak Erketzen lokalean egingo dira. Ekainak 6, 13, 20 eta 27an. Izen emateak Ttakunen (943 371448).

**Kartel lehiaketa**

Durangoko Azokako 43. edizioa prestatzen hasi dira eta kartela aukeratzeko lehiaketa martxan dagoela gogorarazi dute antolatzaileek. Ekainaren

27an amaituko da lanak aurkezteko epea. Informazio gehiago behar izan ezkeror [www.durangokoazoka.com](http://www.durangokoazoka.com) helbidean parte hartzeko oinarriak aurkituko dituzte.

**Pinturako klaseak amaitzen dira**

Datorren larunbatean ekainaren 21ean izango da pintura eta marrazketako azken eskola.

**Glotodidaktika ikastaroa**

Euskara irakaslea izan nahi dutenentzat, Antiguako AEK euskaltegian glotodidaktika ikastaroa antolatu dute. Euskara irakasteko oinarritzko prestakuntza emango da ikastaroan ekainaren 30etik uztailaren 24ra bitartean. Informazio gehiagorako, deitu 943327172 telefonora (Gipuzkoako AEK). Ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologaziorako baldintzak betez gero, AEKren lan poltsan izateko aukera izango duzu.



**Zikiro afariko txartelak salgai**

San Pedro jaietan urtero Ttakunek antolatzen duen Zikiro afarirako txartelak salgai daudela jakinarazi dute. Eskuratu nahi dituenak, Jalgin eta Ttakunen bertan dituzte salgai 18 eurotan.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
Geltoki kalea 4, behea



Irudira zein emanaldira hurbilduz gero atzean dagoena antzemango du ikusleak. "Arretaz begiratzuz gero hamaika gauza harrigarri deskubrituko duzu bertan" diote antolatzaileek.

## Euskal dantzak ulertzeko gakoak eskainiko ditu Erketzek ikuskizun berezi batean

Juan Antonio Urbeltzen teorietan oinarrituko dira dantzen garaiko ikuspegia erakusteko

Ikuskizun berezia eskainiko du Erketz Euskal Dantza Taldeak datorren igandean 22an arratsaldeko 19.30etan Manuel Lekuona Kultur Etxean. Ikus-entzunezkoen bidez lagunduta Erketzekoek egindako dantza bakoitzaren azalpena emango da, dantza hori interpretatzen laguntzeko. Dantzak, bere alderdi estetiko eta koreografikoa baino gehiago direla erakutsi nahi dute Erketzekoek: Denboran iraun duten erritoak dira, gure arbasoek munduaz zuten ikuspegiaren isla eta hori guztia azalduko dute oholtzan jarritako pantaila erraldoi batean Juan Antonio Urbeltz ikerlariaren teorietan oinarrituz.

Jon ALTUNA

Euskal dantza emanaldi bat baino gehiago izango da hila-ren 22an 19:30ean kultur etxean Erketzek eskainiko duena. Euskal dantzen sakoneko esanahia ezagutzeko aukera eskainiko dute ikuskizun berezian. Erketz dantza taldekoen ustez, harrigarria da gure herrietako dantzek gorderik duten mezua eta "txundituta" geratuko dira ikusleak.

Erketzeko antolatzaileen asmoa ikusleari dantzek barrenean gordetzen dutena, aintzinatik dakarten esanahia interpretatzeko gakoak eskaintzea da. "Euskal dantzek ez dute soilik helburu estetiko bat, eta ez dira hurrenkera jakin batean egiten diren urrats andana bat soilik, koreografia hutsa alegia. Gaurdaino iraun duten dantzek, antzinakoen mundu ikuskeraren berri ematen dute. Euskal dantzak, beraz, gure arbasoen mundu ikuske-

raren isla dira, urteen joan etorrian etengabe moldatuz eta egokituz joan direnak. Nola antzeman daiteke, ordea, arbasoek dantzaren bidez ondorengo belaunaldiei utzitako ezagutza hori? Hori izango da aurtengo emanaldiaren helburuetako bat. Egun nazioartean entzutetsuak bihurtzen ari diren hainbat korrante antropologikoen berri emango dugu ikuslea gauza izan dadin ulertzeko zergatik diren euskal dantzak diren bezala."

Erketzen helburua, ondare kulturalari dagokion balioa ematea da, belaunaldiz belaunaldi transmititu den zerbait ikustean ikusitakoari buruzko jakintza zuzena izatea. Horretarako lehenik iraun duen ondare hori bera ezagutarazi behar da, dantza, baina baita hori ulertzeko eta interpretatzeko gakoak eskaini. "Hori egin nahi dugu aurtengo emanaldian. Ikus-entzunezkoak tartekatuko ditugu emanaldian zehar.

**Ikus-entzunezkoen bidez dantza bakoitza interpretatzeko azalpenak emango dituzte**

Hauetan dantzen esanahia agertuko dugu makina bat irudi eta ahozko azalpenen bidez. Horretaz gain, inor balego gaian sakondu nahi duena, esku-liburu bat ere banatuko zaie ikusleei. Zalantzarik gabe, neurri batean, emanaldia didaktikoa izango da."

Juan Antonio Urbeltz euskal folklore eta kulturaren adituaren marko teoriarik oinarritu dira Erketzeko azalpenak prestatzeko. Erketzeko ordez-

kariak adierazi dute berezia izango dela emanaldia, orain arte euskal dantzak ikustera joateko ohiturarik ez dutenei ere irekia, dantzak beste ikuspuntu batekin jasotzekoa.

Urte osoan aritu dira Erketzeko emanaldia prestatzen, lan handia egin dute hainbat herritarren laguntzarekin. Guztiei luzatu dizkie eskerrak, bestela eurek bakarrik ezingo zuten eta tamaina honetako ikuskizunik antolatu.

Aurreko urteetan bezala, aurten ere San Pedroen atarian eskainiko du Erketzek dantza ikuskizuna, Udalaren laguntzarekin, baina taldeko kideek adierazi dutenez, Lasarte-Oriak ez du ahalmenik une honetan horrelako emanaldi txukun bat prestatu eta eskaintzeko. Kanpoko dantzarien laguntzarengatik ez balitz ez zen maila honetako ikuskizunik aurten. Erketz dantza taldeko 16 lagunek Andoaingo Urki taldeko beste 16 dantzaren laguntza izan dute ikuskizuna presta-

tzeko eta Erketz dantza eskolako haurrek, herriko musikari eta kantariak ere parte hartu dute. Guztira 50 bat lagun inguru.

Duela 43 urte sortu zen Erketz taldean, egun, 16 lagun dira eta horietatik 6 bakarrik mutilak, hau da, zortzikotea osatzeko jenderik gabe dabilta. Taldekoek aditzera eman dute une honetan ez dela Lasarte-Oriaren euskal dantzen jarraipena ziurtaturik.

Ikuskizuna dela eta Erketz dantza taldeak berak irudi bat sortu du kaleetan jartzeko. "The message is in the dance. Do you know it?" mezua darabil kartelak eta Erketzekoek jakinarazi dute-nez Irudi horretara zein emanaldira hurbilduz gero atzean dagoena antzemango du ikusleak. "Arretaz begiratzuz gero hamaika gauza harrigarri deskubrituko duzu bertan" diote taldekoek irudiari begiratzeko eta emanaldia ikustera joateko gonbidapena luzatuz. •